

Eugeni Olalde Goitia

*Oñati,
Gipuzkoa
(1936-2025)*

Aurkibidea

Biografia



Oñatiarra, Araotz auzoko Zumalde baserrian jaioa. Taberna eta estankoa zituzten bertan. Bederatzi urterekin Aizkorbe baserrira joan zen bizitzera, osaba-izebei laguntzera. Besteak beste, behizain ibili zen. Hamahiru urterekin Gasteizera bidali zuten, kolegio batera. Bueltan Zahor txokolate-fabrikako bulegoetan hasi zen lanean. Ezkondu arte ibili zen bertan.

Zintak

ONA-110

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-08
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Aita, esneak batu eta partitzen

- **Erref:** ONA-110/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Araozko Zumalde baserrian jaio zen. Araoztarak zituen gurasoak. Taberna eta estankoa zuten. Gainera, aita Araozteko esne denak batzen zituen, kalera eramateko. Tripa-trukeko morroiak zituzten.

2. Zumaldeko taberna

- **Erref:** ONA-110/003
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Jende asko joaten zen tabernara, Arrasatetik eta Aretxabaletatik... bertakoek harrika egiten zieten. Trinitate jaietan, Irizar okindegikoak laguntzera joaten ziren. Sukaldaria eta zerbitzariak ere eramaten zituzten. Bildotsa egoten zen, okela gisatua, tripakiak, flanak, oilaskoak... Estankoa ere bazen.

3. Trinitate jaietan, gonbidatuak

- **Erref:** ONA-110/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Tabernak ez zuen ordutegi jakinik, baina oso berandu ere ez zuten ixten. Gauean gizonak bakarrik egoten ziren. Eliza ondoko jaia bukatzean joaten ziren, Trinitate jaietan. Orkestra egoten zen: saxofoia, soinua eta jazzbana. Lo eta jan Zumalden egiten zuten. Guardia zibilek ere mahai beran jaten zuten. Baserrietan gonbidatuak egoten ziren, eta dotore jartzen zituzten mahaiak.

4. Umetako jolasak

- **Erref:** ONA-110/006
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Zumalden jaio ziren denak, anaia zaharrena izan ezik. Umetako jolasak, belarrekin eta sardina latekin. Aizenarekin egiten zuten soka, sokasaltoan egiteko. Garizuman txirikiletan egiten zuten. Makilarekin txirikila urruti bota behar zen, eta gero handik marrora; bi talde izaten ziren. Txirikila airean hartuz gero, marrora bota beharrik ez. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin ibiltzen ziren normalean

5. Zapakunak

- **Erref:** ONA-110/008
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:13:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Zapakunak (tortolosak): saka, ponte, aldar eta toras. Pilota gora botatzen zen. Bildots hezurak. Koloretako papertxoetan batzen zituzten zapakunak, eta bustita, kolorea hartzen zuten. Etxean bildotsak bazituzten.

6. Bederatzi urterekin, behizain

- **Erref:** ONA-110/009
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:13:59. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Behizain ibili zenekoa. Izeba-osaben etxean egon zen bederatzi eta 11 urte artean. Sei behi gobernatzen zituen. Eskolatik etxera zuzen joan behar izaten zuten. Astoari banastak berak jartzen zizkion, eta arbi bila hiru-lau buelta egiten zituen. Belar beltza mozten zuen, igitaiarekin, oiloei jaten eman, arrautzak batu... Zaperoa zer zen. Saia. Hogeitaka oilo zituzten.</p>

7. Gatza oilandari, arrautza egiteko

- **Erref:** ONA-110/010
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:21:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Oilanda batek kanpoan egiten zituen arrautzak, eta ipurdian gatza jartzen zion lehengusuak, arrautza azkar egiteko eta non egiten zuen ikusteko. Etxean ere gauza bera egiten zuten gero. Baserrietan saldu egiten ziren arrautzak. Plazara joaten ziren, larunbatetan, astoekin, eta bueltan kafea, azukrea, olio... ekartzen zuten. Konfiteroarenean lotzen zituzten astoak batzuek.

8. Pitxarrera pixa

- **Erref:** ONA-110/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:22:18. **Bukatu:** 00:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ur bila joaten ziren pitxarrarekin, iturrietara. Mutiko batek, Gregoriok, esan zion berarekin joateko, eta berak ezetz, egona zela. Pitxarrean pixa egin zion.

9. "Libiri-labara"

- **Erref:** ONA-110/014
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ohitura zegoen behizain zebiltzanei abixua emateko, behiek ihes egiten zietenean, burla-haizez. "Libiri-labara".</p>

10. Gari sailean farolarekin

- **Erref:** ONA-110/015
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:26:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Sukaldeko lana asko gustatzen zitzaion, baina ez zioten uzten. Garia ebaki eta lehortzen uzten zen, ondoren lotzeko. Hego haizearekin nahastu egingo zela eta, goizaldean farolarekin argi egiten ibili zen gari sailean.

11. Eskola garaia

- **Erref:** ONA-110/016
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Bi eskola zeuden, bat mutikoena eta bestea neskena. Txaketuaneko Juli zen maistra hasieran, eta gero señorita Mercedes. Josten erakutsi zieten. Eskola erdaraz ikasten zen, baina beraiek ez zekiten zer esaten zuten ere. Inspektorea zetorrela eta, Franco eta Pio XII aita santua zirela argazkietakoak esan zien maistrak.</p>

12. Gasteizko ikastetxea

- **Erref:** ONA-110/017
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:29:33. **Bukatu:** 00:34:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

12 urte arte egon zen eskolan, eta gero kolegiara joan zen. Aita hil zen, eta taberna itxi zuten. Aitaren gaixotasuna. Txileko osabek lagundu zieten fakturak ordaintzen. Anaia zaharrenak Txilera eraman zituzten, eta bi gazteenak Gasteizko ikastetxe banatara bidali zituzten. Bost urte egin zituen interna, Sagrado Corazon eskolan. Erdaraz zen dena. Jan eta lo, dena han egiten zuten. "Las vascas" ziren. Noizean behin paseoa egiten zuten Armentiarantz.

13. Ikastetxeko bizimodua

- **Erref:** ONA-110/019
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Ikastetxeko bizimodua. Egunero mezetara. Binaka egoten ziren arrasketan. Dutxarik ez zegoen artean. Bainerak bazeuden, baina hankak astean behin garbitzen zituzten eta bainatu hamabostean behin. 70 interna zeuden. Uniformea zuten, urdin iluna, eta oinetako beltzak. Udan kapela eta negurako kaputxa ipini zieten. Bata beltzak, almidoizko lepo zuriarekin. Mezetarako, bata gainetik abrigoa jartzen zuten. Mantilla eta misala. Mezetatik jangelara joaten ziren zuzenean. 13 neskame zeuden, ikasi alde. Bi moja beti zain egoten ziren. Hasieran kafesnea izaten zuten, ogiarekin, eta gero txokolatea jarri zuten, bolloarekin. Jangelatik logelara eta handik eskolara. Zigorrak: paperean 1.000 aldiz idaztea, eskola ordua luzatuta.

14. Kantuzaletasuna

- **Erref:** ONA-110/022
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Amak panderoa jotzen zuen, horrelaxe dibertitzen ziren. Musikazaleak ziren familian. Dantza egitea eta kantatzea gustatzen zaizkio. Modako kantuak: "Tengo una vaca lechera". Euskarazko kantuak, Gabonetan eta. "Markesaren alaba" zekien ondo amak.</p>

15. Teofiloren soinua

- **Erref:** ONA-110/024
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:46:04. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Bertsorik ez zen kantatzen etxean, baina iluntzean Teofilok soinua jotzen zuen, eta berak dantza egiten zuten. Hamabietakoa jotzen zutenean bukatzen zen, eta denak etxera; neguan zortziak aldean zen "hamabittakua".

16. Txarriduna taberna

- **Erref:** ONA-110/026
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:47:52. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Ahizpa Txarriduna tabernan egoten zen zerbitzatzen asteburuetan, eta aste barruan fabrika zebilen. Pepita zen jabea. Laguntzera joan zen bera ere, kontuak egitera eta kobratzera.

17. Autobusa Araotzeraino

- **Erref:** ONA-110/028
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:51:35. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Araotzera igotzeko Garaiko langileentzat kamioia jarri zuten lehenengo eta gero autobusa. Larunbatetan Oñatiarrak autobusak jartzen zituen. Lana kanpoan egiten zutenak etxera joaten ziren astebururako. Taxisak ere ibiltzen ziren bueltaka larunbatetan. Bestela, oinez. "Diarixua" egoten zen egunero Arantzazura, autobusa. Asto gainean igotzen ziren batzuek, baina gehienak oinez.

18. Kafeari txingarra botatzea

- **Erref:** ONA-110/030
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:54:16. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Izebaren etxean, kafeari txingarra botatzen zioten. Beheko suan harrizko lapikoetan egiten zen jana. Izebak kafea nola ehotzen zuen, goizean. Ilinkixarekin txingarra hartu eta kafe lapikoan sartzen zuen. Umetan ere hartzen zen kafea, sagardoa ere bai. Anisa eta koñaka botatzen zitzaion kafeari; sorora eramaten zen, afari-meriendarekin. Baserriko ogia, tremesa, urdaia, txorizo errea, gazta, ardoa eta ura. Berak ere edaten zuen ardoa bota muturretik.

19. Arbia ereiten

- **Erref:** ONA-110/031

- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 01:01:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arbia garia egondako lekuan ereiten zen. Burdinarea, area, goldea. Lurra prestatu ondoren, aitzurrarekin zuloak egiten ziren. Arbi haziak botatzen zituen batek, eta atzetik estali. Simaur pixka bat ere botatzen zitzaion. Miaztu egiten zen gero. Arbi buruak. Abuztuaren 20rako ereinda egoten ziren haziak, San Bernardo egunerako. Neguan arbia jaten zuten behiek. Oiloen zaperorako eta txerrientzat ere bazen.

20. Gasteiztik bueltan, Zahorren lanean

- **Erref:** ONA-110/033
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 01:01:56. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Gasteiztik bueltatu zenean, Araotzen egon zen urtebete edo, eta gero Zahor txokolate lantegian egin zuen lana ezkondu arte.

21. Kutxa barruan lo

- **Erref:** ONA-110/035
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:02:48. **Bukatu:** 01:04:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Pedro anaiaren pasadizo bat. Aizkorben zegoen bera, eta anaia txikia zen. Ama ohean zegoen, eta Maritxu ahizpa sukaldari. Gauean mutikoa falta zen, eta ezin topatu. Kutxa baten barruan aurkitu zuten, lo.

22. Izara zuria ira pilan

- **Erref:** ONA-110/040
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:08:57. **Bukatu:** 01:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Zelai batzuk oso urruti egoten ziren; behiekin haraino joan eta etxera noiz joan behar zuen jakiteko, mendi tontorrera igotzen zen, etxeko ira pilan izara zuria jarri zuten ala ez ikusteko.

23. Amaren txantxak

- **Erref:** ONA-110/042
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:10:39. **Bukatu:** 01:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Bizilagunekin bromak erabiltzen zituzten. Ezkontza bat izan zuten, eta almendra eske mutikoak. Alkanforrak eman zizkieten almendrez orde. Etxe kontran kontu kontari zebiltzan hiru mutil, eta amak txindurriak bota zizkien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com